

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

5924

AGINDUA, 2018ko azaroaren 22koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita nola jakinarazi behar zaizkion Ertzaintzari urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontzien (RPA) eragiketak, hiri, herri edo biztanleguneetako eraikin multzoen gainetik edo aire zabalean elkartutako pertsona taldeen gainetik ibiltzen direnean.

Urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontzien (RPA) eragiketak abenduaren 15eko 1036/2017 Errege Dekretuak arautzen ditu, zeinak urrundik gidatutako aireontzien erabilera zibila arautzen baitu eta ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen; ekainaren 27ko errege-dekretu horrek airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen du aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta -prozeduretarako, eta urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua –Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzen duena– aldatzen du.

Goian aipatutako errege-dekretuaren 21.3 artikuluan azaltzen diren eragiketak egin ahal izateko, haren lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, segurtasun-neurri batzuk hartu eta baimen batzuk eskuratzeaz gainera, jakinarazpena egin behar zaie segurtasun publikoaren arloko eskumena duten agintariei, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak (martxoaren 30eko 4/2015 Legea) 2.3, 3., 4.1, 17. eta 21. artikuluetan xedatutakoaren ondoretarako.

Aurretiazko jakinarazpen hori egin behar da, beraz, urruneko kontrolaren bidez gidatzen diren aireontziekin (RPA) eragiketak egin ahal izateko hiri, herri edo biztanleguneetako eraikin multzoen gainetik edo aire zabalean elkartutako pertsona taldeen gainetik, kontrolatu gabeko aire-eremuan eta hegaldietarako informazio-zonetatik (FIZ) kanpo. Halako eragiketak egin ahal izateko baldintza hauek bete behar dira: aireontziaren gehieneko masa aireraterakoan 10 kg-tik gorakoa ez izatea; eragiketa pilotuaren ikus-eremuaren (VLOS) barruan egitea, pilotuarengandik horizontalean 100 m-ra gehienez, eta lurretik edo aireontziaren inguruko 600 m erradioko eremuan dagoen oztoporik altuenetik 400 oin (120 m) gorago gehienez.

Aurretiazko jakinarazpen hori egin behar da eragiketa baino hamar egun lehenago gutxienez, eragiketa egingo den lurraldean segurtasun publikoaren gaineko eskumena duten agintariek hura debekatzeko edo mugatzeko beharra baloratu ahal dezaten, pertsonai edo ondasunei kalte egiteko arrisku larria sor litekeela iritziz gero.

Hori dela eta, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoak (martxoaren 30eko 4/2015 Legea) 17.1 artikuluan xedatzen duenez, bide edo toki publikoetan ibiltzea edo egotea mugatu edo murriztu ahal izango da eta segurtasun-eremuak ezarri ahal izango dira herritarren segurtasunean edo bizikidetzak baketsuan nahasmendua gertatzen denean, edo gerta daitekeen arrazoizko zantzuak daudenean, mantentzeko edo berrezartzeko ezinbesteko denboraz.

Eta lege beraren 21. artikulua dioenez, agintari eskudunek, aparteko segurtasun-neurri gisa, herritarren segurtasuna bermatzeko ezinbesteko denboraz soilik, neurri hauek har ditzakete, besteak beste: pasatzea debekatzeko edo espazio publikoak ebakutzeko, pertsonak edo ondasunak berehala arriskuan jartzen dituen gertaeraren batek sortutako arrisku-egoeretan. Hori bat dator arestian aipatutako errege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriaren 3. apartatuan ezarritakoarekin; izan ere, xedapen horren arabera, segurtasun publikoaren arloko eskumena duen agintaritzak

urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontzien (RPA) eragiketak mugatzea erabaki dezake, haien erabilera edozein dela ere.

Xedapen honetan jasotako aginduak eta murrizketak edo jakinarazteko betebeharrak betetzen ez badira, martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren V. kapituluaren aurreikusitako zehapenak ezarri ahalko dira.

Estatuko araudi aplikagarriaren arabera, operadoreen betebeharra da kasuan kasuko lurraldean eskumena duten segurtasun-indarrei aurkeztea aipatutako errege-dekretuaren 16.2.a) artikuluan adierazten diren erregistroak, eta Aire Segurtasuneko Estatu Agentziak elkarlanean jardun behar du segurtasun-indar eta -kidego eskudunekin, eta eduki dezaketen informazioa laga behar diote elkarri, errege-dekretuan xedatutakoa aplikatuta.

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen eta Ertzaintzaren artean informazio hori koordinatzeko lana araudi aplikagarriari eta berariaz ezarritako lankidetzaren mekanismoei jarraituz egin behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen arrunta du bere lurraldean pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikoa eta herritarren segurtasuna zaintzeko. Beraz, Ertzaintzari dagokio herritarren segurtasunari eragiten dioten jarduerak kontrolatzeko ahalmenak, beste lurralde batzuetan Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei dagozkienak.

Agindu honek mekanismo batzuk zehazten ditu modu azkar eta eraginkorrean egin ahal izan daitezkeen agindu honek aipagai dituen eragiketei buruzko aurreiazko jakinarazpenak, informazio hori bidaltzeko bitarteko elektronikoak erabiltzeko aukerari eta arloan erantzukizuna duten administrazioen arteko harremanei dagokienez.

Hori dela-eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretuak (airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen duena aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta -prozeduretarako, eta Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzeari buruzko urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua aldatzen duena) 21.3 artikuluan aipatzen dituen eragiketen aurreiazko jakinarazpena, eragiketa horiek osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egitekoak direnean, agindu honen eranskinean dagoen ereduaren eginda aurkeztuko da.

2. artikulua.– Jakinarazpen hori aurrez aurre aurkeztu ahal izango da Ertzaintzaren zentroetan eta ertzain-etxeetan, edo bestela Egoitza Elektronikoaren helbide elektronikoaren bitartez: <https://www.euskadi.eus>.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 22a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

2018ko abenduaren 3a, astelehena

ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILARENTZAKO JAKINARAZPENA Aurretiatzko jakinarazpena egin behar zaio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, horrela xedatzen dutelako martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak (herritarren segurtasuna babestekoa), 2.3, 3., 4.1, 17. eta 21. artikuluetan, eta 1036/2017 Errege Dekretuak (urrundik gidatutako aireontzien erabilera zibila arautzen duena eta ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen duena; ekainaren 27ko errege-dekretu horrek airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen du aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzen duena, aldatzen du), lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan.	Jakinarazpenaren data
	Jakinarazpenaren ordua

JAKINARAZPENA		
Urruneko kontrolaren bidez gidatzen den aireontzi (RPA) baten hegaldia, hiri, herri edo biztanleguneetako eraikin multzoen gainetik edo aire zabalean elkartutako pertsona taldeen gainetik, kontrolatu gabeko aire-eremuan eta hegaldietarako informazio-zonetatik (FIZ) kanpo. Aireontziaren gehieneko masa aireratzerakoan ez da 10 kg-tik gorakoa. Hegaldia pilotuaren ikus-eremuaren (VLOS) barruan egingo da, pilotuarengandik horizontalean 100 m-ra gehienez, eta lurretik edo aireontziaren inguruko 600 m erradioko eremuan dagoen oztoporik altuenetik 400 oin (120 m) gorago gehienez.		
Operadorearen datuak		
Izena edo izen soziala (<i>lehen abizena, bigarren abizena, izena</i>):		NANa, IFZ, AIZ, IFK:
Helbidea / Egoitza soziala		
Bide mota / izena:		
Posta-kodea:	Udalerria:	LH:
Harremanetarako telefonoa (mugikorra eta finkoa):		
Helbide elektronikoa:		
Jakinarazpenetarako lehentasunezko bidea (<i>bi aukeretako bat markatu</i>): <input type="checkbox"/> Posta elektronikoa. <input type="checkbox"/> Posta arrunta. Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (<i>adierazpen-egilearen helbide bera ez denean soilik bete</i>):		
Operadorearen gaikuntza Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren aurrean. ASEAk emandako baimena erantsi behar da, agintaritza eskudunak ezarritako baldintzak eta mugak azaltzen dituena.		
ASEAk esleitutako segurtasun-kodea:		
Ordez kariaren datuak, halakorik badago		
Izena edo izen soziala (<i>lehen abizena, bigarren abizena, izena</i>):		NANa, IFZ, AIZ, IFK:
Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: (<i>bide mota, bidearen izena, posta-kodea, udalerria, LH</i>):		
Posta-kodea:	Udalerria:	LH:
Harremanetarako telefonoa (mugikorra eta finkoa):		
Helbide elektronikoa:		

<p align="center">EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILARENTZAKO JAKINARAZPENA</p> <p>Aurretiazko jakinarazpena egin behar zaio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, horrela xedatzen dutelako martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak (herritarren segurtasuna babestekoa), 2.3, 3., 4.1, 17. eta 21. artikuluetan, eta 1036/2017 Errege Dekretuak (urrundik gidatutako aireontzien erabilera zibila arautzen duena eta ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen duena; ekainaren 27ko errege-dekretu horrek airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen du aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta urtarilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzen duena, aldatzen du), lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan.</p>	Jakinarazpenaren data
	Jakinarazpenaren ordua

Pilotuaren datuak		
Izena edo izen soziala (<i>lehen abizena, bigarren abizena, izena</i>):		NANa, IFZ, AIZ, IFK:
Helbidea / Egoitza soziala		
Bide mota / izena:		
Posta-kodea:	Udalerrria:	LH:
Ziurtagiri medikoa (<i>mota eta indarraldia</i>):		
Ezagutza teorikoen ziurtagiria (<i>mota</i>):		
Erabiliko den RPA modeloarekin egindako entrenamendu praktikoaren ziurtagiria (<i>mota</i>):		
Aseguru-poliza edo finantza-berme indarduna / baliozkotasun data: (<i>entitatea ere adierazi</i>):		
Urruneko kontrolaren bidez gidatutako aireontziaren eragiketa		
Eragiketa mota (<i>zehaztu zer jarduera egingo den: informazioa, irudiak grabatzea, soinua grabatzea, telemetria, behaketa, zaintza etab.</i>):		
Eragiketaren data (<i>eguna, hila eta urtea</i>):		
Eragiketaren lekua (<i>herria, LH</i>):		
Eragiketa hasteko ordua (<i>ordu lokala</i>):		
Eragiketa amaitzeko ordua (<i>ordu lokala</i>):		
Eragiketaren iraupen aurreikusia:		

2018ko abenduaren 3a, astelehena

EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILARENTZAKO JAKINARAZPENA	Jakinarazpenaren data
Aurreiazko jakinarazpena egin behar zaio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, horrela xedatzen dutelako martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak (herritarren segurtasuna babestekoa), 2.3, 3., 4.1, 17. eta 21. artikuluetan, eta 1036/2017 Errege Dekretuak (urrundik gidatutako aireontzien erabilera zibila arautzen duena eta ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen duena; ekainaren 27ko errege-dekretu horrek airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen du aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzen duena, aldatzen du), lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan.	Jakinarazpenaren ordua

Eragiketaren eremu zehatzaren mugaketa (herriko zein zonatan egingo den hegaldia zehaztu behar da lurreko erreferentzia argien bidez, ahal dela kale eta zenbakien bidez, eta hegaldiaren erdiko puntuaren koordinatuak eman behar dira WGS-84 erreferentzia-sisteman, DMS oharrekin (graduak, minutuak, segundoak), baita hegaldiaren erradioa ere).	
Herriko zona	
WGS-84	Erradioa, metrotan
Egingo den ibilbidea, desplazamendurik izango bada (zehaztu kaleak eta zenbakiak, abiadura eta aurreikusitako altuera):	
Babes-eremuaren kokapena (aireratzeko eta ohiko lurreratzeetarako zona):	
Berreskuratze-eremuaren kokapena (larrialdietako lurreratzeetarako zona)	
Eragiketaren altuera aurreikusia:	
Erabiliko den RPA:	
RPA klasea:	
Fabrikatzailearen izena:	
Mota eta modeloa:	
Serie-zenbakia:	
Matrikula (hala behar denean):	
MTOMa:	
Autonomia:	
Autopilotua (autopilotu mota eta posizionamendu inertzialeko sistema, halakorik badu):	
Kontrolaren funtzionamendurako banda eta maiztasunak	

2018ko abenduaren 3a, astelehena

<p align="center">EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILARENTZAKO JAKINARAZPENA</p> <p>Aurretiazko jakinarazpena egin behar zaio Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, horrela xedatzen dutelako martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak (herritarren segurtasuna babestekoa), 2.3, 3., 4.1, 17. eta 21. artikuluetan, eta 1036/2017 Errege Dekretuak (urrundik gidatutako aireontzien erabilera zibila arautzen duena eta ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen duena; ekainaren 27ko errege-dekretu horrek airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen du aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta urtarrilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua, Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzen duena, aldatzen du), lehen xedapen gehigarriaren 4. apartatuan.</p>	Jakinarazpenaren data
	Jakinarazpenaren ordua

RParena:		
Kolorea:		
Argiak (ikuspen handiko pintura etab.):		
Ordainpeko karga (kamera, mikrofonoa, antena, infragorriak, objektuak, gailuak etab.):		
VHF komunikazio-ekipamendua:		
S moduko erantzungailua (aire-eremu kontrolatua bakarrik derrigorrezkoa):		
Larrialdietako ekipamendua (hegaldia amaitzeko sistema segurua):		
Aurrerako ikuspen-gailua:		
Behatzaileen datuak (halakorik bada):		
Izena edo izen soziala (lehen abizena, bigarren abizena, izena):		NANa, IFZ, AIZ, IFK:
Helbidea / Egoitza soziala		
Bide mota / izena:		
Posta-kodea:	Udalerria:	LH:
Lekua eta data	Izena, abizenak eta kargua (adierazpen-egilearenak)	Sinadura
<p>Jakinarazpen honen bitartez ADIERAZTEN DUT hemen jarritako datu guztiak egiazkoak direla; eta jakitun nago erantzukizunak egotzi ahal zaizkidala datu ez-zuzen edo faltsuengatik, omisioengatik edo ez-betetzeengatik.</p> <p>Era berean, jakinarazpen honi erantsitako edo beronetan sartutako edozein datu, adierazpen edo agiri zuzena ez izateak edo faltsua izateak edo halakoan omisioak, funtsezkoa izanez gero, berekin ekarriko du programatutako jarduera ezin egitea halako egitateen berri jakiten den unetik aurrera.</p> <p>Inprimaki honen bidez jakinarazten zaizu ezen, datu pertsonalen babesari buruzko araudi erregulatzailean ezarritakoarekin bat, jasotako datu pertsonalak dagozkien fitxategietan gorde eta tratatuko direla, eta pertsona eta ondasunen babesaren kontrako arrisku larriei aurrea hartzea izango dela fitxategi horien helburua; halaber, antzeko eskumenak dituzten administrazio publikoei laga ahalko zaizkie, legean aurreikusitako beste lagapen batzuez gainera. Tratamenduaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetza da (Larrauri-Mendotxe Bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia), eta organo horren aurrean baliatu ahalko dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, haien aurka egiteko, haiek indargabetzeko eta ezabatzeko eskubideak.</p>		